



GAZTELANIA ATZERRITAR HIZKUNTZA (GAH) IRAKASLEGOARENTZAKO FORMAKUNTZA (7. ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2021-2022/2022-2023

ARLOA: Giza Zientziak

KREDITUAK: 5,6 ECTS (*)

MATRIKULAREN PREZIOA: 380 euro (modulu bakoitza)

ZUZENDARITZA AKADEMIKOA: Ainhoa Gómez Pintado

AURKEZPENA

Ikastaro hau, profesional ospetsuek emango dute Cervantes Institutuarekin lankidetzan, eta irakasleen funtsezko gaitasunak garatzera bideratuta dago, hala nola ikasteko egoerak antolatzen.

Ikastaro honek, bi modulu independentetan ematen denak (bata edo bestea, edo biak egin daitezke), ELE irakasteko beharrezkoak diren alderdien ikuspegi orokorra ematen du.

ZURE BILA GABILTZA

Bihur zaitez ELEko irakasle!

Lanbidean hasi edo sakondu nahi baduzu, hauxe da zure ikastaroa!

Metodologia praktiko eta parte hartzaile baten bidez, profesional gisa hobetzeko aukera emango dizuten ezagutza didaktikoak, linguistikoak eta kulturalak deskubritu edo eguneratu ahal izango dituzu. Saio bakoitzean hizlariak gai bat aurkeztuko du eta taldekako eta banakako zereginak egingo dira, eduki horietara egokituta.

Material didaktikoa izango duzu, eta, modulua amaitutakoan, bertaratze ziurtagiria emango zaizu.

Gainera, modulu bakoitza eginez gero, gehienez 2 ECTS kredituko aitortzea lor liteke UPV/EHUren graduatuko ikasketetan.

Zain gaituzu!



IRTEERA PROFESIONALAK

Espainian:

- Eskolak eta akademiak,
- Gobernuz kanpoko erakundeak eta elkarteak,

Espainiatik kanpo:

- Cervantes Institutua,
- Irakurletzak,
- Eskolak eta akademiak.

BETEKIZUNAK

Unibertsitateko graduduna izatea. Gainera, bertakoak ez diren ikasleei espainierazko C1 maila eskatzen zaie.

IRAKASKUNTZA

- **Lehen modulua:** "Espainola atzerriko hizkuntza moduan irakasteko gaitasunen garapena eta ikuspegien berrikuspena" online sinkronoa.
- **Bigarren modulua:** "Nola izan ELEko irakaslea", Elurreta Eraikina (Arabako Campusa)

IKASTAROAREN DATAK:

- **Lehen modulua:** "Espainola atzerriko hizkuntza moduan irakasteko gaitasunen garapena eta ikuspegien berrikuspena": 2022/02/25etik 2022/04/09ra.
- **Bigarren modulua:** "Nola izan ELEko irakaslea": 2022/10/21etik 2022/12/03ra

LEKUA: Elurreta Eraikina, 33 (Arabako Campusa)

HIZKUNTZA: Gaztelania

INFORMAZIO BULEGOA

IKASTEGIA: Arabako Campuseko Errektoreordetza. Nazioarteko Harremanetako Bulegoa.

HELBIDEA: Izaola komandantea, 2. 01006 Vitoria-Gasteiz

TELEFONOA: 34 945 01 33 56

HELBIDE ELEKTRONIKOA: cursosidiomas@ehu.eus

WEBGUNEA: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/ele>

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.